

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACION DEL TERRITORIO

**EAE-KO HEZEGUNEEN LURRALDE ARLOKO
PLANAREN ALDAKETA-PROIEKTUAK
INGURUMENEAN DUEN ERAGINARI BURUZKO
EBALUAZIO BATERATUAREN AZTERLANA**

**ESTUDIO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE
IMPACTO AMBIENTAL DEL PROYECTO DE
MODIFICACIÓN DEL PLAN TERRITORIAL
SECTORIAL DE ZONAS HÚMEDAS DE LA CAPV**

2008ko URTARRILA / ENERO 2008

**“EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZEGUNEEN LURRALDE
ARLOKO PLANAREN ALDAKETA-PROIEKTUAK” INGURUMENEAN
DUEN ERAGINARI BURUZKO EBALUAZIO BATERATUAREN
AZTERLANA**

Aurkibidea

Orrialdea

1. SARRERA.....	7
1.1. TXOSTENGILEAK.....	7
2. EAE-KO HEZEGUNEEN LURRALDE ARLOKO PLANAREN ALDAKETAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA HELBURU HORIEK LORTZEKO AZTERTUTAKO AUKEREN DESKRIBAPENA.....	9
2.1. JARDUKETA-EREMUAREN DESKRIBAPENA ETA LAP-AREN ALDAKETAREN DENBORA-ALDIA.....	9
2.2. LAP-A ALDATZEAREN HELBURUAK AZALTZEA, ETA INGURUMENAREKIN LOTURA DUTEN HELBURUEI AIPAMEN BEREZIA EGITEA.....	11
2.2.1. LAParen testuan dauden nomenklatura-akatsak zuzentzea.....	12
2.2.2. Inurritzako ibaiaren muga aurkitu den grafiko-akatsa zuzentzea.....	12
2.2.3. Urola ibaiaren zona-banaketa aldatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak 2007ko urtarrilaren 12an emandako epaiari jarraiki (46/05 zenbakidun administrazioarekiko auzi-errekurtsoa).....	17
2.2.4. LAPen erabileren araudian beste bi erabilera berri sartzea.....	23
2.2.4.1. Zulaketa gidatua edo bultzada bidezko ezarpen horizontala.....	23
2.2.4.2. Arkeologia- eta kultura-ondarea zaintzeko, zaharberritzeko eta berreskuratzeko jarduerak eta neurriak.....	24
2.2.5. Ingurumen Esparruko Programaren (2007-2010) konpromisoekiko koherentzia.....	25
2.2.6. Hezeguneen LAParen aldaketan kontuan hartu beharreko ingurumen-irizpide estrategikoak	26
2.3. EZARRITAKO HELBURUAK LORTZEKO AZTERTU DIREN AUKERAK.....	28
2.4. EAE-KO HEZEGUNEEN LAP-AREN ALDAKETAN JASOTAKO PROPOSAMENEN ETA JARDUKETEN LABURPENA:.....	29
2.5. HIERARKIA-MAILA HANDIAGOKO BESTE PLAN BATZUETATIK ERATORRITAKO IRIZPIDEAK ETA JARRAIBIDEAK AZTERTZEA, INTEGRATZEA ETA GARATZEA HELBURU DUTEN XEDAPENEN LABURPENA.....	30
2.6. ERAGINA IZAN DEZAKETEN LAP-AREN ALDAKETAKO JARDUKETAK IDENTIFIKATZEA.....	30
2.7. EAE-KO HEZEGUNEEN LAP-AREN ALDAKETAREN ETA HORI GAUZATUKO DUTEN PROIEKTUEN EXEKUZIO-FASEAK.....	30
2.8. PARTE-HARTZE PUBLIKOAREN MAILA ETA ERABILITAKO PROZEDURA.....	31
3. BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN AZTERKETA..	33
3.1. HIERARKIA-MAILA HANDIAGOKO PLANAK ETA PROGRAMAK IDENTIFIKATZEA	33

3.1.1. Lurralde Antolamendurako Artezpideak	33
3.1.2. Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako II. taldeko hezeguneen Lurralde Zafiko Plana	39
3.1.3. EAEko II. taldeko hezeguneen Lurralde Arloko Plana	43
3.1.3.1. EAEko ibaiertzen eta erreka-bazterren antolamendurako Lurraldearen Arloko Plana eta urpean geldi daitezkeen eremuak	43
3.1.3.2. EAEko nekazaritza- eta baso-eremuetako Lurralde Arloko Plana	49
3.1.3.3. EAEko itsasertzak babesteko eta antolatze Lurralde Arloko Plana	50
3.1.3.4. Kultura-ondarearen Lurralde Arloko Plana	50
3.2. NAZIOARTEAN, EUROPAN, ESTATUAN EDO ERKIDEGOAN ZEHAZTUTAKO XEDEAK ETA KONPROMISOAK IDENTIFIKATZEA	51
3.2.1. Nazioartea, Europa eta estatua	51
3.2.2. Erkidegoa: Garapen Iraunkorrerako Euskadiko Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta Ingurumen Esparruko Programa (2007-2010)	53
3.3. AZTERKETA-EREMUAN ERAGITEN DUTEN BESTE PLANAK IDENTIFIKATZEA	54
3.3.1. Eremu babestuak	54
3.3.1.1. Nazioartean garrantzia duten Ramsar hitzarmeneko hezeguneen zerrenda	55
3.3.1.2. Natura 2000 Sarea	55
3.3.1.3. EAEko natura-eremu babestuak	57
3.3.1.4. II. taldeko hezeguneen eta eremu babestuen arteko bateragarritasuna	58
3.3.2. EAEko Korridore Ekologikoen Sarea	63
3.3.3. Fauna-espezieak kudeatzeko planak	67
3.3.3.1. Mustela lutreola bisoi europarra kudeatzeko plana	67
3.3.3.2. Kudeaketa-planen proposamenak (Eusko Jaurlaritzak 2001ean eta 2002an egin zituen baina argitaratu ez ziren txostenak):	68
3.3.3.3. Arriskuan dauden espezieak kudeatzeko planak eragiten ez dien II. taldeko hezeguneak	69
3.3.4. Flora-espezieak kudeatzeko planak	69
3.3.5. Antolamendu-planak eta natura-eremu babestuen erabilera- eta kudeaketa-planak	69
3.3.6. Landa Garapenerako Plan Iraunkorra 2007-2013	70
3.3.7. Euskal Basogintza Plana 1994-2030	71
3.3.8. Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra 1999-2010	72
4. EAE-KO HEZEGUNEETAN LAP-AREN ALDAKETAK ERAGINDAKO EREMUAREN INGURUMEN-AZTERKETA, -DIAGNOSIA ETA -BALORAZIOA	73
4.1. II. TALDEKO HEZEGUNEEN INGURUMEN-BALORAZIOA	73
4.1.1. Barbadunen itsasadarra (A1B1)	73
4.1.2. Butroiren itsasadarra (Plentzia) (A1B2)	75
4.1.3. Learen itsasadarra (Lekeitio) (A1B4)	75
4.1.4. Artibairen itsasadarra (Ondarroa) (A1B5)	76
4.1.5. Debaren itsasadarra (A1G1)	77
4.1.6. Urolaren itsasadarra (Zumaia) (A1G2)	78
4.1.7. Inurritzaren itsasadarra (Zarautz) (A1G3)	79
4.1.8. Oriaren itsasadarra (A1G4)	80
4.1.9. Santa Barbarako urmaela (B2G2)	82
4.1.10. Olandinako aintzira (B6A1)	82
4.1.11. Arreo-Caicedo Yusoko lakua (B6A2)	83
4.1.12. Bikuñako aintziratxo (B7A1)	85
4.1.13. Navaridaseko aintzira (B8A9)	86
4.1.14. Salburuako hezeguneak (B9A3)	87
4.1.15. Lakorzanako aintzira (B10A1)	88
4.1.16. Astrabuduako ibarreko hezegunea (B10B1)	89
4.1.17. Bolue haraneko lurzoru-istiltzeak (B10B3)	90
4.1.18. Gesaltza Añana (CA1)	91
4.1.19. Etxerreko urmaela (DB4)	92
4.1.20. Bibliografia	93
4.2. II. TALDEKO HEZEGUNEETAN DAGOEN KULTURA-ONDAREA	95
4.2.1. Arkeologia-ondarea	96

4.2.2. Ondare arkitektonikoa.....	98
4.2.3. Bibliografia.....	99
4.3. ERREFERENTZIA-DOKUMENTUAK ESKATUTAKO INGURUMEN-AZTERKETAREN ALDERDI ESPEZIFIKOAK	103
4.3.1. Natura-intereseko eremuen katalogo irekia.....	103
4.3.2. Garrantzi komunitarioko espezieak	104
4.3.3. EAeko paisaia berezien eta apartekoen katalogoa.....	106
4.3.3.1. Deskribapen orokorra	106
4.3.3.2. EAeko paisaia berezien eta apartekoen katalogoaren taula.....	109
4.3.3.3. Bibliografia.....	111
4.3.4. Arriskuan dauden espezieen EAeko katalogoan sartutako flora- eta fauna-espezieen populazioen edo indibiduen banaketa-eremua. MA2-4 zonari dagokion eremua.....	115
4.3.5. Urdaibaiko Biosfera Erreserba	115
4.3.6. Hidrologia.....	115
4.3.7. Lur azpiko uraren masak	116
4.3.8. Lurra kutsa dezaketen jarduerak egiteko lekuak. MA2 - 4.....	119
4.3.8.1. Deskribapen orokorra	119
4.3.8.2. Bibliografia.....	119
5. TEKNIKOKI ARRAZOIZKOAK DIREN ALTERNATIBEN INGURUMEN-AZTERKETA. ERABAKITAKO KONPONBIDEAREN ARRAZOIKETA.....	121
5.1. GRAFIKO- ETA NOMENKLATURA-AKATSAK ZUZENTZEA	121
5.2. UROLA IBAIAREN ZONA-BANAKETA ALDATZEA	121
5.3. ZULAKETA GIDATUA EDO BULTZADA BIDEZKO EZARPEN HORIZONTALA.....	122
5.4. ARKEOLOGIA- ETA KULTURA-ONDAREA ZAINZEA, ZAHARBERRITZEA ETA BERRESKURATZEA	124
6. EAE-KO HEZEGUNEEN LAP-AREN ALDAKETAREN HAINBAT JARDUKETEK DUTEN ERAGINA IDENTIFIKATZEA ETA BALORATZEA.....	125
6.1. EAE-KO HEZEGUNEEN LURRALDE ARLOKO PLANAREN ALDAKETAN ZEHAZTUTAKO HELBURUEN INGURUMEN-ERAGINA	125
6.2. EAE-KO HEZEGUNEEN LAP-AREN ALDAKETAN ZEHAZTUTAKO JARDUKETEN INGURUMEN-ERAGINA	125
6.2.1. Ingurumen-eraginari buruzko ebaluazio bateratuaren xede diren jarduketak, goragoko hierarkia-mailetan.....	125
6.2.2. Gorago dauden hierarkia-mailetan ingurumen-eraginari buruzko ebaluazio bateratuaren xede izan ez diren jarduketak identifikatzea, horien ezaugarriak zehaztea eta kalifikatzea.....	126
6.2.2.1. Natura-baliabideen galera	127
6.2.2.2. Ingurumen-ezaugarri ahuleko eremuetan duen eragina	131
6.2.2.3. Estetika- eta kultura-baliabideetan duen eragina	132
6.2.2.4. Baliabide berriztagarrietan eta ez berriztagarrietan duen eragina.....	133
6.2.2.5. Hondakinen sorrera eta kutsaduraren handitzea	136
6.2.2.6. Giza osasunean duen eragina.....	137
6.2.2.7. Hiri barruko ingurumenaren kalitatean duen eragina	139
6.2.2.8. Ekologia- eta nekazaritza-produktibitatearen galera	139
6.2.2.9. Kultura-ondarean duen eragina	141
6.2.2.10. Mugaz gaindi izan ditzakeen eraginak	141
6.2.2.11. Ondorioz sor daitezkeen arriskuen azterketa	142
6.2.2.12. Ingurumen-eragina definitzeko dauden zailtasunen eta ziurgabetasunen deskribapena	142
6.2.2.13. Inpaktuen ezaugarriak zehaztea eta kalifikatzea.....	143
7. BABES-, ZUZENKETA- ETA KONPENTSAZIO-NEURRIEN PROPOSAMENAK	145
7.1. PLANGINTZA BAINO GORAGOKO MAILETAN DAGOEN INGURUMEN-ERAGINAREN EBALUAZIOTIK ONDORIOZTATUTAKO NEURRI ZUZENTZAILEAK IDENTIFIKATZEA	145
7.2. HEZEGUNEEN LAP-A ALDATZEAREN HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK EGOKITZEKO PROPOSAMENA	145

7.3. HEZEGUNEEN LAP-A ALDATZEKO BABES-, ZUZENKETA- ETA KONPENTSAZIO-NEURRIAK	145
7.3.1. Prebentzio-neurri orokorrak:	147
7.3.1.1. Eremu babestuak	147
7.3.1.2. Bisoi europarrarentzat interes berezia duen eremua	148
7.3.1.3. Aurreikusitako erabilera berrien jarduketa-proiektu guztietan hartu beharreko neurriak	148
7.3.2. Prebentzio-neurri espezifikoak	152
7.3.2.1. Urola ibaiaren zona-banaketa aldatzea	152
7.3.2.2. Zulaketa gidatua edo bultzada bidezko ezarpen horizontala	153
7.3.2.3. Arkeologia- eta kultura-ondarea zaharberritzea eta berreskuratzea.....	155
7.3.3. Landare-espezie exotikoak eta inbaditzaileak errotik mozteko eta kontrolatzeko konpentsazio-neurriak, Hezeguneen LAPa aldatzearen ondoriozko obrek eragindako eremuetan.	158
7.4. PROPOSATUTAKO NEURRIEN KOSTU EKONOMIKOA, GUTXI GORABEHERA	158
7.5. ERABILERA BERRIAK ZEHAZTEA HELBURU DUTEN PROIEKTUEN DISEINUAN KONTUAN HARTU BEHARREKO IRIZPIDEAK	159
7.6. INGURUMEN-EBALUAZIOA BEHARREZKO DUTEN PLANAREN JARDUKETAK	159
7.7. INGURUMEN-ADIERAZLEAK	161
7.7.1. Ingurumen-helburuen adierazleak	161
7.7.2. Neurri zuzentzaileen betetze-mailaren jarraipena egiteko adierazleak.	163
8. EAE-KO HEZEGUNEEN LAP-A ALDATZEAREN ONDORIOAK IKUSKATZEKO PROGRAMA	165
8.1. KONTROL-HELBURUAK, INGURUMEN-ALDAGAIK ETA METODOLOGIA	165
8.2. KONTROL-ZIURTAGIRIAK	166
8.2.1. Prebentzio-neurri orokorrak:	166
8.2.1.1. Eremu babestuak	166
8.2.1.2. Bisoi europarrarentzat interes berezia duten eremuak	167
8.2.1.3. Aurreikusitako erabilera berrien jarduketa-proiektu guztietan hartu beharreko neurriak	168
8.2.2. Prebentzio-neurri espezifikoak	179
8.2.2.1. Zulaketa gidatua edo bultzada bidezko ezarpen horizontala egitea, padura-eremuan	179
8.2.2.2. Zulaketa gidatua edo bultzada bidezko ezarpen horizontala egitea, barnealdeko hezegunean	185
8.2.2.3. Arkeologia- eta kultura-ondarea zaharberritzea eta berreskuratzea.....	190
8.2.3. Adostasun ezaren erregistroak	200
8.3. IKUSKAPEN-PROGRAMA GAUZATZEAZ ARDURATZEN DEN ERAKUNDEA	201
ANEXO 1. LANDARE-ESPEZIE EXOTIKOAK ETA INBADITZAILEAK ERROTIK MOZTEKO ETA KONTROLATZEKO KONPENTSAZIO-NEURRIAK, HEZEGUNEEN LAP-A ALDATZEAREN ONDORIOZKO OBREK ERAGINDAKO EREMUEAN	203
1. SARRERA	203
1.1. BACCHARIS HALIMIFOLIA	204
1.2. CORTADERIA SELLOANA (PANPAKO BELARRA)	206
1.3. REYNOUTRIA JAPONICA	209
1.4. PASPALUM VAGINATUM	211
1.5. SPARTINA ALTERNIFOLIA	212
1.6. ROBINIA PSEUDOACACIA (SASIAKAZIA)	214
1.7. BIBLIOGRAFIA	215

Irudien aurkibidea

Orrialdea

6-1. planoak: Inurritzaren itsasadarra (Zarautz) (A1G3). Debaren itsasadarra (A1G1) – aldatua.....	15
II.4. liburuxkako 2., 3. eta 5. antolamendu-planoak: Lea ibaiaren itsasadarra (Lekeitio) (A1B1). Urola ibaiaren itsasadarra (A1G2), Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurralde Arloko Plana behin betiko onartzen duen uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren Eranskinari dagokiona.....	19
Urola ibaiaren itsasadarreko 4. planoak (A1G2) – aldatua.....	21
1. mapa: EAEko natura-intereseko eremuak	37
2. mapa: EAEko ibaiertzen eta erreka-bazterren antolamendurako Lurralde Arloko Plana – Urpean geldi daitezkeen eremuak	47
3. mapa: EAEko eremu babestuak.....	61
4. mapa: EAEko Korridore Ekologikoen Sarea.....	65
5. mapa. Natura-baliabideetan eragin dezaketen jardueren irizpideak betetzen dituzten kultura-ondarearen elementuak.	101
6. mapa. EAEko paisaia berezien eta apartekoen katalogoa.....	113
7. mapa. Unitate Hidrogeologikoak.....	117

1. SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurralde Arloko Planaren aldaketak beharrezko du ingurumen-eraginari buruzko ebaluazio bateratua egitea, otsailaren 27ko 3/1998 Legeari (Euskadiko ingurumena babesteko lege orokorra) eta uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuari (ingurumen-eraginari buruzko ebaluazio bateratuaren prozedura arautzen duena) jarraiki.

Ingurumen-eraginari buruzko ebaluazio bateratuaren azterlan hau 183/2003 Dekretuaren eranskinean xedatutakoari jarraiki egin da, eta, erreferentzia-dokumentuan zehaztutako norainokoari eta edukiari erantzuten dio; dokumentu hori, zehazki, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren 2007ko azaroaren 27ko Ebazpenaren bidez eman zen, 2007ko urrian Ingurumena eta Lurralde Antolamendua Sailak hasitako aurretiko kontsulta-prozesuari erantzuteko.

1.1. TXOSTENGILEAK

“EAEko Hezeguneen Lurralde Arloko Planaren Aldaketa-proiektuak” ingurumenean duen eraginari buruzko ebaluazio bateratuaren azterlan hau egiteko, ingurumen-azterketak egiten dituen **Ekos Estudios Ambientales SL** enpresak lan-talde bat prestatu du, Biologian doktore den **Antonio Bearen** zuzendaritzapean (zuzendaritza nagusia).

Lanen koordinazioa **Amanda Seoaneren** esku dago; Seoane anderea Geografian lizentziaduna da, eta, horrez gain, beste hainbat zereginen deskribapenetan ere parte hartzen du: planaren aldaketaren helburu estrategikoak, beste plan eta programa batzuekiko elkarreragina, alternatiben azterketa, babes- eta zuzenketa-neurrien proposamena, adierazleak, eta ikuskapen-programa.

Lan-taldea honako hauek osatzen dute: **Iñaki Olano** eta **Nerea Ruiz de Azua** Biologian lizentziadunak dira, eta “Fauna” eta “Babes- eta zuzenketa-neurrien proposamenak” sailetan parte hartzen dute; **Yves Meyer** ere Biologian lizentziaduna da, eta II. taldeko

hezeguneetako (ingurumen-diagnosia), Eremu Babestuetako eta Landaredietako ingurumen-balorazioak egiten laguntzen du; **Ana Herreras** Biologian lizentziaduna da, baita ere, eta II. taldeko hezeguneetan eta paisaia berezietan dagoen kultura-ondarearen azterketa egiteaz arduratzen da (ingurumen-diagnosia); **Angela Oscozek** Ingurumeneko Masterra du, eta eraginei nahiz babes- eta zuzenketa-neurriei buruzko lanetan laguntzen du; **Mercedes Valenzuela** Biologian lizentziaduna da, eta, aurrekoak bezala, eraginei nahiz babes- eta zuzenketa-neurriei buruzko lanetan laguntzen du; **Maite Ibarrola** Kimikan eta Ingurumen Zientzietan lizentziaduna da, eta Diagnosian laguntzen du; eta, azkenik, **Leire Retegi** Ingurumen Zientzietan lizentziaduna da, eta, eraginak identifikatu eta baloratzeaz gain, honako zeregin hauetan ere laguntzen du: beste plan eta programekiko elkarreraginak, babes- eta zuzenketa-neurriak, jarraipen-adierazleak, eta ikuskapen-programak.

Bestalde, delineazioaz **Eduardo Etxenike** arduratzen da, Industri Maisua.

2. EAE-KO HEZEGUNEEN LURRALDE ARLOKO PLANAREN ALDAKETAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA HELBURU HORIEK LORTZEKO AZTERTUTAKO AUKEREN DESKRIBAPENA

2.1. JARDUKETA-EREMUAREN DESKRIBAPENA ETA LAP-AREN ALDAKETAREN DENBORA-ALDIA

EAEko Hezeguneen Lurralde Arloko Planaren aldaketa honen jarduketa-eremuak LAParen lurralde-eremua hartzen du bere baitan.

Bestalde, EAEko Hezeguneen Lurralde Arloko Planaren lurralde-eremuan II. taldeko hezeguneei egiten die erreferentzia (Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurralde Arloko Plana behin betiko onartzen duen uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren 7. artikulua).

II. taldeko hezeguneeak honako hauek dira (160/2004 Dekretuaren 5. art.):

- Txingudi (A1G6)
- Barbadunen itsasadarra (A1B1)
- Butroiren itsasadarra (Plentzia) (A1B2)
- Learen itsasadarra (Lekeitio) (A1B4)
- Artibairen itsasadarra (Ondarroa) (A1B5)
- Debaren itsasadarra (A1G1)
- Urolaren itsasadarra (Zumaia) (A1G2)
- Inurritzaren itsasadarra Zarautz) (A1G3)
- Oriaren itsasadarra (A1G4)
- Santa Barbarako urmaela (B2G2)
- Olandinako aintzira (B6A1)

- Arreo- Caicedo Yusoko lakua (B6A2)
- Bikuñako aintziratxoa (B7A1)
- Navaridaseko aintzira (B8A9)
- Salburuako hezeguneak (B9A3)
- Lakorzanako aintzira (B10A1)
- Astrabuduako ibarreko hezegunea (B10B1)
- Bolue haraneko lurzoru-istiltzeak (B10B3)
- Gesaltza Añana (CA1)
- Etxerreko urmaela (DB4)

Txingudiko itsasadarrean (A1G6), “Txingudi eremuko (Gipuzkoa) Natura-baliabideak Babesteko eta Antolatze Plan Berezia” behin betiko onartuta dago, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen sailburuaren aginduz; zehazki, Irungo udalerriari dagokion zatia 1994ko uztailaren 29an onartu zen, eta, Hondarribiko udalerriari dagokiona, berriz, 2001eko irailaren 26an. Eremu hori II: taldean sartuta egon arren, zona horretako antolamendua dagokion araudi espezifikokoaren arabera egin da, eta, beraz, ez da EAeko Hezeguneen Lurralde Arloko Planaren antolamendu-xede. Horrenbestez, Txingudiko itsasadarra ez da aintzat hartu ingurumen-eraginari buruzko ebaluazio bateratuaren azterlan honetan.

LAParen aldaketaren denbora-aldia mugagabea da; horregatik, behin betiko onartzen diren zehaztapenek indarrean jarraitzen dute, aldatzen edo berriro aztertzen dituzten arte.

2.2. LAP-A ALDATZEAREN HELBURUAK AZALTZEA, ETA INGURUMENAREKIN LOTURA DUTEN HELBURUEI AIPAMEN BEREZIA EGITEA

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurralde Arloko Plana behin betiko onartzen duen uztailaren 27ko 160/2004 Dekretua (222. EHAA, 2004-11-19) indarrean egon den aldian, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Biodibertsitaterako eta Partaidetzarako Zuzendaritzak EAeko Hezeguneen LAPean zenbait aldaketa egiteko beharra jakinarazi du, bai eta Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzean hauteman ez ziren zenbait akats material zuzentzea ere.

Aldaketa horien helburua hainbat erabilera ahalbidetzea da: batetik, babes-eremutzat hartzen diren lekuetan baliabide eta/edo prozesu ekologikoen iraupena galarazten ez duten erabilerak, eta, bestetik, balio zientifikoek eta kulturalen kontserbaziorako egokitzat eta beharrezkotzat hartzen direnak. Aldaketa horiek uztailaren 27ko 106/2004 Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoari jarraiki egingo dira, eta, inola ere, ez dute funtsean Hezeguneen Lurralde Arloko Plana aldatuko, ez eta lurralde-antolamenduaren eredua ere.

Proposatu diren aldaketak hiru multzotan bana daitezke:

- LAParen testuan dauden nomenklatura-akatsak zuzentzea eta Inurritzako ibaiaren mugan aurkitu den grafiatu-arazoa konpontzea.
- Urola ibaiaren zona-banaketa aldatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak 2007ko urtarrilaren 12an emandako epaiari jarraiki (46/05 zenbakidun administrazioarekiko auzi-errekurtsua).

- LAParen erabilera-araudian, beste bi erabilera sartzea: “zultatze gidatua edo bultzada bidezko ezarpen horizontala” eta “arkeologia- eta kultura-ondarea zaintzeko, zaharberritzeko eta berreskuratzeko jarduketak eta neurriak”.



2.2.1. LAParen testuan dauden nomenklatura-akatsak zuzentzea

- 5. artikuluko 7. paragrafoan aurkitutako akatsa zuzendu da; hau da: *Pozo de Lamiogin (GA11)* jartzen duen lekuan *Pozo de Lamiogin (B7A4)* jarri behar du.
- Halaber, 14. artikuluan –*Kostako hezeguneak. Barbadunen itsasadarra (A1B1). 2.- Zona-banaketa eta antolamendu-kategoriak. + Ingurumen-hobekuntza. – Berreskuratu beharreko eremu degradatuak*– aurkitutako akatsa zuzendu da: MA2-1: CLH sektorea jartzen duen tokian, MA2-2: CLH sektorea jarri behar du.



2.2.2. Inurritzako ibaiaren muga aurkitu den grafiko-akatsa zuzentzea.

160/2004 Dekretuaren 5. artikuluan –Hezeguneen sailkapena–, honako hau zehaztu da, I. taldeari dagokionez: “*Talde honetan sartu dira, natura-eremu babestu (natur parkeak edo biotipo babestuak) izendatzeagatik eraginak izan dituzten hezeguneak eta Urdaibaiko biosfera erreserba. Zona horien antolamendua ez da Lurralde Arloko Plan honen xedea, eta, beraz, eremu horietako bakoitzeko araudi espezifikokoari jarraiki antolatuko dira*”.

Hezeguneen LAParen muga Inurritzako Biotipo Babestuaren mugari gainjartzen zaio, zona txiki batean; hauek dira, zehazki, bertako koordenatu nagusiak: X = 568,465 eta Y = 4.793.016. MA1-1 bezala sailkatutako zonan dago, eta biaduktuaren iparraldeko zona deitzen zaio. Zona hori otsailaren 25eko 40/1997 Dekretuak arautzen du, Inurritza Biotipo izendatzeari buruzkoa. Zona horiek ez dira Hezeguneen LAParen antolamenduxede, eta bakoitzaren araudi espezifikoaren arabera antolatzen dira; hori dela-eta, zona horretako muga aldatu egin da, eta Inurritzako Biotipo Babestuan jarri da muga berria.




Inurritzako Biotipo Babestia eta inguruko zona (40/1997 Dekretuaren arabera) eta antolatutako eremua.



MA1-1 bezala sailkatutako eta biaduktuaren iparraldeko zona izendatutako eremuko mugaren aldaketa; muga berria Babestutako Biotipoan ezarri da.

160/2004 Dekretuko Eranskinaren II. liburuxkaren 2. antolamendu-planoaren ordezt, LAParen aldatetaren Eranskinaren 6. plano jarri da; jarraian bi planoak ikus daitezke.




II.6. liburuxkako 2. antolamendu-planoa: Inurritzaren itsasadarra (Zarauz) (A1G3). Debaren itsasadarra (A1G1), Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurralde Arloko Plana behin betiko onartzen duen uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren Eranskina.



6 — 1

INURRITZAREN ITSASADARRA (ZARAUTZ) (A1G3). DEBAREN ITSASADARRA (A1G1)

RIA DEL INURRITZA (ZARAUTZ) (A1G3). RIA DEL DEBA (A1G1)



INGURUMEN
HOBEKUNTZA

INGURUMEN HOBEKUNTZA

MA1 - 1 - Bidezubiaren ipar alde

MA2 - 1 - Sakoneta

MA2 - 2 - Asti

AREAS DE MEJORA DE ECOSISTEMAS

MA1 - 1 - Zona norte del viaducto

MA2 - 1 - Area de Sakoneta

MA2 - 2 - Asti

MEJORA
AMBIENTAL

2.2.3. Urola ibaiaren zona-banaketa aldatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak 2007ko urtarrilaren 12an emandako epaiari jarraiki (46/05 zenbakidun administrazioarekiko auzi-errekurtsoa).

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak 2007ko urtarrilaren 12an 46/05 zenbakidun administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokionez emandako epaia betearazteko, 160/2004 Dekretuan Urola ibaiaren itsasadarrean EP-3 eremutat definitutako eremuaren zati bat aldatu egingo da, eta, Hezeguneen LAParen aldakuntza oinarrituz, “Ingurumenaren hobekuntza” antolamendu-maila duen eremutat sailkatuko da.

Horrenbestez, 14. artikulua –*Kostako hezeguneak. Urola ibaiaren itsasadarra (Zumaia) (AIG2). 2.- Zona-banaketa eta antolamendu-kategoriak. + Ingurumen-hobekuntza. Berreskuratu beharreko eremu degradatuak*– aldatuko da, eta aurrez daudenei beste eremu bat gehituko zaie: MA2-4: Korta zona.

Honela deskribatu dute:

Betegarri degradatuzko lurrez osatutako zona, HA-18 Korta industrialdearen espazio libreetako berdeguneen iparraldean.

Erabileren eta jardueren erregulazio-matrizean, “Zonak” atala gehitu da, “Errekuperatu beharreko eremuak (MA-2)” antolamendu-mailari dagokiona: “MA2-4: Korta” zona.


Antolamendu-planoei dagokienez, uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren Eranskinaren II. liburuxkan Hezeguneen LAParen aldaketa-proiektuaren I. eranskineko 4. planoari jarri da, Urola ibaiaren itsasadarrari dagozkion 2., 3. eta 5. antolamendu-planoen ordez; horrez gain, Gorostiagako ibarreko Korta Zona (EP-3 izendatutako HA-18: Korta industrialdearen espazio libreetako berdeguneen iparraldean dauden betegarri

degradatuzko lurak barne hartzen dituen) "Berreskuratu beharreko MA2-4 eremutat" sailkatu da.

II.4. liburuxkako 2., 3. eta 5. antolamendu-planoak: Lea ibaiaren itsasadarra (Lekeitio) (A1B1). Urola ibaiaren itsasadarra (A1G2), Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurralde Arloko Plana behin betiko onartzen duen uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren Eranskinari dagokiona.



<p>BABES BEREZIKO GUNEAK</p> <p>EP-1 - Santiagoko podurak eta dunak EP-2 - Erdiko tarteko uharteak EP-3 - Erdiko tarteko, lokatzak eta podurak</p>		<p>AREAS DE ESPECIAL PROTECCION</p> <p>EP-1 - Marismas y Dunas de Santiago EP-2 - Islotes del tramo medio EP-3 - Tramo medio. Fongos y marisma</p>	3	
<p>INGURUMEN HOBEKUNTZA</p>	<p>EXOSISTEMEN HOBEKUNTZARAKO GUNEAK</p> <p>MA1-1 - Santiagoko hareatzak MA1-2 - Bedua ouzoo</p>	<p>AREAS DE MEJORA DE ECOSISTEMAS</p> <p>MA1-1 - Arenas de Santiago MA1-2 - Barrio de Bedua</p>		<p>MEJORA AMBIENTAL</p>
	<p>LEHENERATU BEHARREKO GUNEAK</p> <p>MA2-1 - Narrondoko ibarra MA2-2 - Torrantegi ibarra MA2-3 - Erdiko tarteko lokatzak</p>	<p>AREAS DEGRADAS A RECUPERAR</p> <p>MA2-1 - Vega de Narronda MA2-2 - Vega de Torrantegi MA2-3 - Fongos del tramo medio</p>		
	<p>NEKAZARITZA ETA ABELTZANTZAKO GUNEA ETIA LANDEZABALA</p> <p>AG-1 - Santiago baserriaren landazabala AG-2 - Ibarroide ibarra</p>	<p>AREA AGROGANADERA Y CAMPIÑA</p> <p>AG-1 - Campiña del caserío de Santiago AG-2 - Vega de Ibarroide</p>		
<p> Ambito de ordenación Dominio Público Marítimo-Terrestre (Deslinde definitivo) Servidumbre de protección del dominio público marítimo-terrestre (Deslinde definitivo) Dominio Público Marítimo-Terrestre (Proyecto de deslinde) Servidumbre de protección del dominio público marítimo-terrestre (Proyecto de deslinde) Límite Municipal Goiko tartea Beheko tartea </p>				



2.2.4. LAPen erabileren araudian beste bi erabilera berri sartzea

2.2.4.1. Zulaketa gidatua edo bultzada bidezko ezarpen horizontala

160/2004 Dekretuaren bidez onartutako Babes Bereziko Eremuetan, hainbat gairen (gasa, petrolioa eta produktu deribatuak, ura, saneamendua, telekomunikazioak) garraio- eta banaketa-sareak, azpiegituren lur azpiko sareak, nahiz beste instalazio osagarriak lurrean zangarik ireki gabe ezarri ahal izateko, zulaketa horizontala edo bultzada bidezko ezarpen horizontala sartu da, LAParen maila guztietan erabili daitekeen prozedura; izan ere, zangak irekitzea debekatuta dago Babes Bereziko Eremuetan (160/2004 Dekretu bidez behin betiko onartutako LAParen gainerako mailetan erabili daiteke, udal-plangintzaren bidez garatuta).

Beraz, 8. artikulua *–Lurraren erabileren eta jardueren definizioa. D.3–* aldatu egin da, eta D.3. ataleko izendapenaren eta definizioaren ordezt, honako hau jarri da:

D.3.-Lur azpiko lineen hondeaketak

Hondeaketa-jarduerak eta hainbat produkturen (gasa, petrolioa eta produktu deribatuak, ura, saneamendua, telekomunikazioak) garraio- edo banaketa-sareak, lur azpiko azpiegituren beste sare batzuk eta instalazio osagarriak ezartzea.

Horrez gain, D.3. atalari beste azpiatal bat gehitu zaio:

D.3.1.- Zulaketa gidatua edo bultzada bidezko ezarpen horizontala

Teknika honen bidez, tutueriak zangarik ireki gabe ezartzen dira.

Halaber, 12. artikulua *–Erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizea–* aldatu da; honela, hain zuzen:

Kostaldekoko hezeguneetarako antolamendu-mailetan erabilerak esleitzeko matrizean honako laukitxo hauek gehitu dira:

Erabilerak eta jarduerak, egungoak edo izan daitezkeenak	EP	MA1	MA2	AG	FP	F1
D.3.1- Zulaketa gidatua edo bultzada bidezko ezarpen horizontala	2(b)	2(b)	2(b)	2(b)	2(b)	2(b)

(b) Bereziki debekatu ez den zonetan

Barnealdeko hezeguneetarako antolamendu-mailetan erabilerak esleitzeko matrizean, berriz, honako laukitxo hauek gehitu dira:

Erabilerak eta jarduerak, egungoak edo izan daitezkeenak	EP	MA1	MA2	AG	FP	F1
D.3.1- Zulaketa gidatua edo bultzada bidezko ezarpen horizontala	2(d)	2(d)	2(d)	2(d)	2(d)	2(d)

(d) Baldintzatuak eta kontrolatuak

2.2.4.2. Arkeologia- eta kultura-ondarea zaintzeko, zaharberritzeko eta berreskuratzeko jarduerak eta neurriak

Egun, arkeologia- eta kultura-ondarea zaintzeko, zaharberritzeko eta berreskuratzeko eragiketak ez daude LAPean definituta eta araututa, eta, beraz, ezin dira gauzatu LAP horrek araututako zenbait eremutan; horrenbestez, horiek gauzatu ahal izateko, 8. artikulua *–Lur-erabileren eta jardueren definizioa–* osatu egin da, eta “E.3. Bis” atala gehitu zaio:

E.3.Bis.- Kultura-ondarearen elementuak

Arkeologia- eta kultura-ondarea zaintzeko, zaharberritzeko eta berreskuratzeko jarduerak eta neurriak

Halaber, 12. artikulua –*Erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizea*– aldatu da; honela, hain zuzen:

Kostaldeko hezeguneetarako antolamendu-mailetan erabilerak esleitzeko matrizean honako laukitxo hauek gehitu dira:

Erabilerak eta jarduerak, egungoak edo izan daitezkeenak	EP	MA1	MA2	AG	FP	F1
E.3.Bis- Kultura-ondarearen elementuak	2(b)	2(b)	2(b)	2(b)	2(b)	2(b)

(b) Bereziki debekatu ez den zonetan

Barnealdeko hezeguneetarako antolamendu-mailetan erabilerak esleitzeko matrizean, berriz, honako laukitxo hauek gehitu dira:

Erabilerak eta jarduerak, egungoak edo izan daitezkeenak	EP	MA1	MA2	AG	FP	F1
E.3.Bis- Kultura-ondarearen elementuak	2(d)	2(d)	2(d)	2(d)	2(d)	2(d)

(d) Baldintzatuak eta kontrolatuak

2.2.5. Ingurumen Esparruko Programaren (2007-2010) konpromisoekiko koherentzia

Hezeguneen LAParen aldaketa koherentea da Ingurumen Esparruko Programarekin, honako xede eta helburu hauek lortzen laguntzen baitu:

- **“MA2-4: Korta” eremu degradatua berreskuratzea**

Jarduketa: “MA2-4: Korta” eremu degradatua berreskuratzea

Helburua: eremuari padura-ekosistematzat hasieran zuen funtzionaltasuna ematea.

Ingurumen Esparruko Programa

3. xedea, 7. helburua: “Biologia-dibertsitatearen galera geldiaraztea, itsas eta lehorreko habitaten eta ekosistemen funtzionamendu iraunkorra babestuz eta lehengoratzuz.

3. xedea, 7. helburua, 3. konpromisoa: “Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen LAPean sartuta dauden hezeguneetako 50 hektarea lehengoratzuz”.

3. xedea, 7. helburua, 4. jarduketa-ildoak: “...ibaien eta hezeguneen kontserbazio-egoera onuragarria lortzeko bidean aurrera egitea; horretarako, hain zuzen, ingurumen horiek zaintzeko, lehengoratzeko eta jarraitzeko oinarriak ezarriko dira...”.

- **Zulaketa horizontal gidatuaren bidez, tutueriak ezartzea**

Jarduketa: tutueriak ezartzea zangarik ireki gabe, zulaketa horizontal gidatuaren teknika erabiliz.

Helburua: lur azpiko zerbitzuen instalazioan kalte ekologikoak saihestea.

Ingurumen Esparruko Programa

3. xedea, 7. helburua: “Biologia-dibertsitatearen galera geldiaraztea, itsas eta lehorreko habitaten eta ekosistemen funtzionamendu iraunkorra babestuz eta lehengoratzuz.

2.2.6. Hezeguneen LAParen aldaketan kontuan hartu beharreko ingurumen-irizpide estrategikoak

Ingurumen Sailburuordetzak Ebazpen bat eman zuen 2007ko azaroaren 27an, aldaketa honi erreferentzia egiten dion dokumentua egiteko (ikus erreferentzia-dokumentuaren 3.

atala); hain zuzen, ebazpen hartan xedatutakoari jarraiki, LAParen aldaketan honako ingurumen-irizpide estrategiko hauek aintzat hartu beharko dira:

- 1) Uraren kalitate ona (1. xedea, 2. helburu estrategikoa)
- 2) Lurraldearen erabilera orekatua lortzea. Lurraldean jarduten duten hainbat sektoreen plangintza bateratua eta koherentea egitea, artifizioal bihurtzearen eta zatikatzearen arazoak konponduta gera daitezen (4. xedea, IEPren 9. helburu estrategikoa)

2.a) Urtero, hirigintza- eta eraikuntza-jarduerak direla-eta artifizioal bihurtzen den hektarea-kopurua gutxitzen joatea.

- 3) Itsas eta lehorreko habitaten eta ekosistemen funtzionamendu iraunkorra babestuz eta lehengoratzuz, aniztasun biologikoaren galera geldiaraztea (3. xedea, IEPren 7. helburu estrategikoa); halaber, irizpide horri lotuta, M3.3 konpromisoa hartuko da: EAEko Hezeguneen LAPean sartuta dauden hezeguneetako 50 hektarea lehenera ekartzea.

3.a) Natura 2000 Sarea: ezarpena, zaintza eta kudeaketa-planak. Araudi-esparrua sortzea (3. xedea, 2. ekintza-ildoak).

3.b) Babestutako natura-eremuetatik kanpo dauden eremuen babesaren nahikotasuna, koherentzia eta lotura. Horretarako, aurrera egin beharko da honako alor hauetan: Korridore Ekologikoen Sarearen garapena, paisaiaren babesa (EAEko paisaia berezien eta apartekoen katalogo bat abian jarriz) eta paisaia-kalitatearen helburuen eta irizpideen zehaztapena, ibaien eta hezeguneen kontserbazio-egoera egoki batera iristeko nahia (ingurune horiek kudeatzeko, lehengoratzeko eta horien jarraipena egiteko oinarriak ezarriz), eta tokian tokiko babesaren sustapena (hiri-inguru-eremuetako parkeak sortuz eta arau subsidiarioetan babes bereziko zonak izendatuz (3.07. xedea, 4. lerroa).

3.c) Hirigunean, berdeguneetako eta ibai-zatietako ingurumen-kalitatea hobetzea, hiri-eremuetako biodibertsitatea hobeto kontserbatzeko (3.07. xedea, 9. ildoan).

2.3. EZARRITAKO HELBURUAK LORTZEKO AZTERTU DIREN AUKERAK

- **Grafiko- eta nomenklatura-akatsak zuzentzeari** dagokienez, Hezeguneen LAParen aldaketetan ez da lurralde-alternatibarik izan (ikus memoria honen 2.2.1. eta 2.2.2. atalak).
- **Urolako zona-banaketaren aldaketa** Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako 46/05 zenbakidun administrazioarekiko auzi-errekursoaren epaia betetzearen ondorio da (07/01/12). Ikus memoria honen 5.2. atala.
- Aldaketa honetan sartu diren erabilera berriei dagokienez, honako aukera hauek aztertu dira:

Zulaketa gidatua edo bultzada bidezko ezarpen horizontala:

a) aukera: Babes bereziko eremuetan lur azpiko azpiegituren trazadurak egiteko jarduketara zehatzak debekatzea (gainerako mailetan erabilera hori baimenduta dago, eta udal-plangintzaren bitartez garatu behar da).

b) aukera: lur azpiko lineak egiteko, bultzada bidezko teknikaren erabilera baliagarritzat hartzea, antolamendu-maila guztietan.

Arkeologia- eta kultura-ondarea zaintzea, zaharberritzea eta berreskuratzea


a) aukera: LAPak araututako zonetan, kultura-ondarearen zaharberritzea ez da onartuko, eta, beraz, baztertuta uztea dela-eta, zona horretan dauden kultura-ondareko zenbait elementu galdu egingo dira.

b) aukera: Hezeguneen LAParen antolamendu-eremuan dagoen kultura-ondarea berreskuratzeko aukera zabaltzea; hori dela-eta, arkeologia- eta kultura-ondarea zaintzeko, zaharberritzeko eta berreskuratzeko jarduketak eta neurriak onartuko dira antolamendu-maila guztietan.

2.4. EAE-KO HEZEGUNEEN LAP-AREN ALDAKETAN JASOTAKO PROPOSAMENEN ETA JARDUKETEN LABURPENA:

Honako hauek dira proposatutako aldaketen ondorioz sortu eta lurraldean eragina duten jarduerak:

- MA2-4: Korta eremu berriko ingurumena berreskuratzeko tratamendua egitea.
- Tutueriak ezartzea, zangarik ireki gabe; obrak egin bitartean gauzatzen den jarduketa horretan, honako lan hauek egin behar dira:
 - Sarrera- eta irteera-zuloetarako lursailak prestatu; beharrezko azalera (gutxi gorabehera, 600 m²-ko lursaila) hautatutako makinaren neurrien arabera izaten da.
 - Lohia kontrolatzeko eta tratatzeko ekipoak ezarriko diren zona egokitu.
 - Instalatu diren tutuak pilatzeko beharrezko den lursaila atondu.
 - Sarrera- eta irteera-zuloetara iristeko lursaila egokitu, baldin eta aurrez sarbiderik ez badago.



Iturria: Catalana de perforaciones empresa, Bartzelona (informazio-iturria: “Padura-eremuetan lur azpiko lerroak egiteko, zuloaketa horizontal gidatuaren edo bultzada bidezko ezarpen horizontalaren teknika egokitzeari buruzko txostena”, II. eranskina).

- Arkeologia- eta kultura-ondarea zaharberritzea eta berreskuratzea; gainera, eraikitako ondarearen zaharberritzea (obrak) eta birgaitutako eraikinari emango zaion erabilera (ustiapena) bereiztu ahal izango dira.

2.5. HIERARKIA-MAILA HANDIAGOKO BESTE PLAN BATZUETATIK ERATORRITAKO IRIZPIDEAK ETA JARRAIBIDEAK AZTERTZEA, INTEGRATZEA ETA GARATZEA HELBURU DUTEN XEDAPENEN LABURPENA

Hezeguneen LAParen aldaketa ez dator bat hierarkia-maila handiagoko beste plan batzuetatik eratorritako irizpideen eta jarraibideen garapenarekin.

2.6. ERAGINA IZAN DEZAKETEN LAP-AREN ALDAKETAKO JARDUKETAK IDENTIFIKATZEA

Honako hauek dira, hain zuzen, ustez ondorioak eragin dituzten jarduketak:

- Zulaketa gidatua egiteari dagokionez: sarrera- eta irteera-zuloak egiteko lursailak nahiz kontrol-ekipoak eta beste instalazioak jartzeko zonak egokitzea, sarbideak irekitzea, bultzada bidezko ezarpena egitea, makinak mugitzea, pilaketak egitea...
- Arkeologia- eta kultura-ondarea zaharberritzeari dagokionez: eraikuntzako esku-hartzeak eta birgaitutako eraikinari azkenean emango zaion erabilera.

2.7. EAE-KO HEZEGUNEEN LAP-AREN ALDAKETAREN ETA HORI GAUZATUKO DUTEN PROIEKTUEN EXEKUZIO-FASEAK

Hezeguneen LAP-aren aldaketa behin betiko onartu eta gero, aldaketan proposatutako jarduketak era askotako proiektuen bidez gauzatuko dira; proiektu horiek, hain zuzen, kasu bakoitzean zehaztuko dira, sustatzailearen arabera (udalak, foru-diputazioak, Eusko Jaurlaritza...). Bestalde, lurralde-ezaugarri espezifikoekin lotutako eskakizunak eremu berari eragiten dieten beste plan eta araudiekin (udal-plangintza, LZP, LAP, Natura 2000 Sarea...) duten harreman hierarkikoaren eta zeharkakoaren arabera gauzatuko dira.

2.8. PARTE-HARTZE PUBLIKOAREN MAILA ETA ERABILITAKO PROZEDURA

Lurralde Antolamendurako Artezpideen, Lurralde Zatiko Planen eta Lurraldearen Arloko Planen aldaketa ez hain garrantzitsuak onartzeko prozedura arautzen duen irailaren 9ko 206/2003 Dekretuari jarraiki, hasiera batean onartutako Hezeguneen LAParen aldaketa jendaurrean jarriko da hilabetez, akordioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren hurrengoan kontatzen hasita. Aldi berean, interesa duten lurraldeko administrazio publiko guztiei jakinaraziko zaie, hilabeteko epean alegazioak, oharra eta iradokizunak egin ditzaten.